

EUSKAL UNIBERTSITATEAREN ERBESTEALDI LUZEA

Paulo AGIRREBALTZATEGI

(saio-idazlea eta idazlea)

1. Paristik Salamancara: euskal herriaren erbestealdi unibertsitaria

Jose Estornés Lasaren arabera, Euskal Herriko lehen erakunde unibertsitarioa Parisen sortu zen. Nafarroako Joana erreginak, Felipe Ederra erregearen, Frantziako IV.a eta Nafarroako I.aren, emazteak, 1304an Parisen eraikiarazi zuen Nafarroako Kolegioa aipatuz hasten du bere *Los Vascos y la Universidad* liburua.

Oso adierazgarria dugu hori, gure hemengo gaiari begira: lehen euskal unibertsitate-erakunde erbestean, atzerrian, eraiki zuten XIV. mendean hasiera hartan; latina zuen, orduan, bere irakaskuntzako hizkuntza. *Exilioan* du hasiera, beraz, Euskaldunon Unibertsitateak, orduko eta gaurko Euskal Herritik urruntxo: *exilio* territoriala, jakina, baina batez ere *exilio* linguistiko-kulturala. Nafarroako Kolegio hura Parisko teologiako fakultate internazional ospetsu bihurtuko zen geroago.

Fakultate horren itzalpean eta Parisen egin zituzten unibertsitateko ikasketak Ignazio Loiolakoak eta Frantzisko Xabierkoak XVI. mendean, Europako beste hainbat ikaslerekin batera; *natio gallica* taldean sailkatuta zeuden biak, Unibertsitate hartako ikasleen sailkapenean.

Haiena bezala, unibertsitate-ikasle eta irakasle euskaldunen historia luzea exiliokoa izan da, eta Euskal Herritik urrun gertatu da: Paris, Bordele nahiz Tolosa, Madril, Bartzelona nahiz Valladolid. Historia ezaguna da Euskal Herriko gazte unibertsitarioen “peregrinazioa”, beren Herritik kanpo.¹

Aipaturiko hirien eta bestelakoen gainera, Salamanca gertatu izan da mendeetan Hego Euskal Herriarentzat erreferentzia unibertsitario nagusia, eta gure ikasle-irakasleen nolabaiteko ametsa. Amets handia askorentzat; amesgaiztoa ere bai nonbait batzuentzat, kanta ezagunak adierazten duenez:

Gazte-gaztetatik aita ta amak
fraide ninduten nonbratu,
estudioak ikasizera
Salamancara bialdu.
Salamancara
nindoalarik
bidean nuen pentsatu,
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.

Salamancan ikasitako jakintza eskaini zigun Pedro Axularrek (1556-1644) bere *Gero* liburuan, euskara ederrean, eta ondo geureganaturik kasu honetan. Bertan ikasi edota irakatsi zuten “gure” Herriko unibertsitate-irakasle handi askok. Frantzisko Vitoriakoa jurista eta teologoa (Gasteiz?, 1486-1546) Salamancan izan zen irakasle; Domingo Báñez Artasubiaga teologoa ere (1528-1604) —“mondragonensis sum”, bere hitzetan— Salamancako Unibertsitatean egin zen irakasle eta polemista ezagun; Martin Azpilikueta “Doctor Navarrus” ospetsua ere Salamancan izan zen katedradun garai batez, Portugaleko Coimbrako Unibertsitatera aldatu aurretik; gure Manuel Larramendi jakintsu, politologo eta euskararen apologista (Andoain, 1690-1644)

¹ Esteban Bilbaok honela zioen Eusko Ikaskuntzaren lehen kongresuaren itxierahitzaldian, “Universidad vasca” eraiki beharra nabarmendu ondoren: “Es un dolor, señores, es un verdadero dolor la peregrinación de los estudiantes vascos obligados a dejar patria y hogar, familia y amigos, para ir a lejanas urbes donde no han de estudiar problemas vivos y palpitantes de su país que después han de preocuparles durante su vida profesional. (...) Es un dolor, el dolor de tantos profesores vascos obligados a vivir en apartados centros de enseñanza sin más relación entre sí y con su país que aquella que les permiten unas difíciles vacaciones veraniegas. Y así resulta, señores, que separados todos los esfuerzos y disueltas todas las iniciativas se pierden las más provechosas capacidades para la obra de la restauración cultural vasca” (956-957).

Salamanca Unibertsitatean ikasi eta irakatsitakoa zen, Euskal Herri-ratu aurretik. Horien guztien ondoren entzutetsuena, ordea, Miguel de Unamuno (Bilbo, 1864-1936) dugu, jakina, Salamancako Unibertsitatean katedradun (1891) eta geroago bertako errektore. Bertan eman zituen bizitzako urterik gehienak, bertan egin zen irakasle eta idazle entzutetsu eta bertan hil zen Unibertsitateko errektore, bere burua “euskal arrazaren” ereduzat zeukan Unamuno.

Bestelako historia egin digute honako hiru irakasle euskal herri-tar oso ezagunok, Salamancari lotuak eta nolabait bertatik abiatuta hauek ere: Anjel Apraizek (Gasteiz), Koldo Mitxelenak (Errenteria) eta Jose Maria Setienek (Hernani). Hirurak izan ziren Salamancako Unibertsitateko katedradun. Baina hango katedra utzi eta Euskal Herrira etorri ziren, beren ezagutzak euskaldunon zerbitzura jartzera. Apraiz eta Mitxelena, berriz, zuzenean hango unibertsitatea utzi eta Euskal Herrian bertoko unibertsitatea eraikitzen itzuli ziren. Arrakasta ezberdina izan zuten, ordea, biek, geroago ikusiko dugunez.

Rodrigo Mercado de Zuazola oñatiarra ere Salamancako ikasle izana zen, lehenago Jakan jardun ondoren; irakasle, berriz, Valladoliden izan zen, apezpiku izan aurretik. Salamancakoaren eredura eta haren pribilegio eta guzti eraiki zuen berak Oñatiko Sancti Spiritus —edo Espiritu Santuaren— Unibertsitatea (1540), horretarako bere ekimen eta jakinduriak gain, bere ondasunak ere ipiniz. Zordun gara euskaldunok apezpiku oñatiarrarekin.

Era berean esker on apartekoa zor diegu Anjel Apraiz eta Koldo Mitxelenari, Salamancako Unibertsitate ospetsuaren distirak alde batera utzirik, Euskal Herriko Unibertsitatea, bertakoa eta publikoa, eraikitzeko ipini zituztelako kanpoan harturiko beren jakintza eta eskarmentua.

Ondo dakigunez, protagonista izan zen Koldo Mitxelena Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHUren) sorreran. Mitxelena ikaslearen lehen *unibertsitatea* ez zen Salamancako eraikin errenazentista argitsu eta dotorea izan, espetxeko ziega iluna baino. Baina Salamancako irakasle izatera iritsi zen: Hizkuntza Indoeuoparretako katedraduna, hain zuzen ere, nahiz eta bera Euskal Filologian izan bereziki aditua. Hango katedra utzi eta Euskal Herriko Unibertsitate berria eraikitzen etorri zen bera, horretarako baldintza politiko hobeak sortu zirenean. Bertako errektoreorde izateaz gain, Euskal Filologiako irakasle izan zen. Euskaraz eman zuen bere gaia, jakina. Gure unibertsitatearen

mende luzeetako erbestealdi kontradiktorioaren, erbeste-historia luzearen irudi enblematikoa dugu Koldo Mitxelena. Historia luze horren amaiera ere seinlatu ote zuen Mitxelenak? Seinlatu bai, seguruenik; baina amaiera ekarri... bestelako kontua da hori.

Anjel Apraiz eta Koldo Mitxelenari buruz mintzatzera geroago ere itzuliko gara.

2. Gure unibertsitatea: exilio linguistiko-kulturalaren historia

Mitxelenaren irudi enblematiko horrexek garamatza, eraman ere, gure hitzaldi honetako gaiaren muinera: *Gure unibertsitatearen exilio linguistiko-kulturalaren historiari begiratzera.*

Erbesteratuta bizi behar izan duenak normalean badaki bere exilioa ez duela bere herritik urruti bizi beharra bakarrik, askoz sakonagoa dela hori: exilio kulturala dela, eta sarritan —euskaldunen kasuan ia beti— *exilio* linguistikoa ere badela. *Exilio* linguistikoa, ordea, ez du bizi erbestera joan behar izan duenak bakarrik, bere Herrian bizi arren, bere hizkuntzan bizi ezin duenak jasaten du *barne-exilio* linguistikoa. Eta hizkuntz komunitateari hizkuntza kendu edota murriztu baldin badiote, komunitate osoa bizi da murrizturik eta nolabait erbesteraturik bere Herrian.

Hizkuntzazko aberriaz eta hizkuntzazko *exilioaz* hizkuntzalari asko eta poeta ugari mintzatu izan zaigu. *Antonio de Nebrija* Kultur Elkartek badu webgune bat, *La página del idioma español* izenekoa. Horren barruan badu kokaturik irakurgai adierazgarri bat, José del Valle-rena: “La lengua, patria común”; idatzi luzea da, jatorriz “Estudios Lingüísticos” sailean argitaratua.²

Ez da erraza izango erabakitzen zeinek idatzi zuen lehen aldikoz “Neure hizkuntza dut neure aberria”; agian Rubén Darío nikaraguarrak. Gaztelaniari buruz ari zen, jakina. Gerora, ordea, askotxo zabaldu da metafora, poeten artean eta hizkuntzalarien artean. Fernando Pessoa poeta brasildarrak (1888-1935) ere berdin sentitu zuen portugesa:

² Neronek ere “Erdararen atzerritik Euskararen aberrira” titulua eman nion José M. Sánchez Carrión “Txepetx”en *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas* liburuaren inguruan egindako iruzkian (1987, 97-117).

“Minha pátria é a lingua portuguesa”. Albert Camus-ek baieztapen filosofiko-antropologikotzat enfatizatu zuen frantsesa bere aberritzat: “Ma patrie, c’est la langue française. Oui, j’ai un patrie: la langue française”.

Gure artean, eta seguruenik lehenbizikoz modu argian, Arturo Campi3n-ek aldarrikatu zuen, sentimendu eta ikuspegi politikoagotik begiratuta: “hizkuntza aberria da, eta aberriaren hizkuntza errespetatzen duten herriek euren hizkuntza kontserbatzen dute”. Euskal Herriarentzat aberritzat euskara aldarrikatzen ari zen seguruenik Campi3n. Lehenago Victor Hugok idatzia zuen: “Euskaldunek aberritzat, ia ia erlijiotzat, daukate beren hizkuntza, euskara”.

Unamunok bestelako metafora erantsi zuen, “La Sangre del Esp3ritu” olerkia idatzi zuenean (340): “La sangre de mi esp3ritu es mi lengua, y mi patria es all3 donde resuene”. Baina bere euskalduntasuna errebindikatuz, beste olerki batean “Yo soy mi pueblo” aldarrikatu zuena edota “si algo signifi3co es porque mi raza ha llegado en m3 a conciencia de s3 misma” idatzia zuena, gaztelaniari buruz ari zen lehen olerki hartan.³ Bilbon euskararen katedrako oposizioak galduta, eta euskarari uko eginez, Salamancako Unibertsitatean aurkitu zuen gaztelaniaren aberria eta, bere ustez, Espainiari eta munduari bere arrazaren ekarpenik onena egiteko “misio-lurra”, beste behin idatzi zuenez, Euskal Herria baitzen kultura esp3ritualerako gaituena Espainian; baina hori zabaltzeko, bere euskara baztertu behar omen zuen, gaztelania hartuz bere hizkuntzat.⁴ Unamuno dugu unibertsitateak Euskal Herrian bizi izan duen kontradikzio historikoaren adibiderik dramatikoa: Euskal Unibertsitatearen beraren ideia ukatzerainokoa, euskarak ez baitzeukan unibertsitateko hizkuntza izaterik, haren ustez.

³ Unamunok jaulkitako beste askoren artean dago honako hau ere: “naizen eta balio dudan oro euskaldun nazu ta ene abendari zor diot” (Mitxelena *Unamuno eta Abendats* saiakeran, 1977, 352). Unamuno kontradiktorioari buruz ikus Joxe Azurmendi (2006), bereziki 10. eta 11. kapituluak.

⁴ “El pueblo vasco es en Espa3a el pueblo m3s capacitado hoy para la 3ntima vida de la cultura esp3ritual” (Unamuno, I, 743). Alde batetik Unamunoren miresle izanik ere, Salbatore Mitxelena (1977, 362) ez zetorren bat —nola etorri?— Unamunoren “iraulketa” mental horrekin, eta euskalduna baino espainiarrago ikusten du hura beraren konbertsioaren ondoren: “Axaletik, batbateko gainbegirada ari3nean beintzat, espai3narrago dama euskaldun ba3o, naizta berak zi3neman dun oro euskotar dula; ta naiz bere espai3nartasuna euskaltasunaren zabaltze bat izan”.

Joana erreginak Nafarroako Unibertsitate-Kolegio hura Parisen XIV. mendearen hasieran sortu zuenetik, unibertsitate-erakunderik eraikitzeko amets eta proiektu ugaritxo sortu izan da Euskal Herrian, Estornés Lasa eta beste historialariek kontatzen digutenez; eta bideratu ere bideratu izan dituzte horietakoren batzuk zazpi mendeotan. Izan ere, Estornés Lasaz gain, amets, asmo, proiektu eta errealizazio horien guztien historia aztergai izan dute, besteak beste, Jose Lasak eta Jose Luis Orellak. Une hau ez da, ordea, horietako bakoitzaren historia eta istorioak biltzekoa.⁵ Dena dela, 1980an eraikitako Euskal Herriko Unibertsitatearen aurretik lurralde honetan sorturiko unibertsitateei buruzko gogoeta kritikoren batzuk egin behar ditugu.

2.1. Oñatiko eta Iratxeko Unibertsitateak: Salamancakoaren ereduak

Horietan aurrena Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea dugu —Espiritu Santuaren Unibertsitatea, alegia—, 1540an Paulo III.aren buldaren bidez eraikia; XIX. mendean batez ere gorabehera handiak izan zituen: 1842an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foruak suntsitu eta Nafarroa Espainiako probintzia soil bihurtu eta berehala, bigarren mailako Institutu bihurtu zuen Esparteroren gobernuak, Valladolideko Unibertsitatearen menpe jarritz; gerora urteren batzuetan unibertsitate bezala jardun zuen, Madrilgo gobernuak 1901ean erabat degradatu zuen arte. —Esan beharra dago, ordea, gobernu karlistak bi aldiz eraiki nahi izan zuela dekretuz Oñatiko Unibertsitatea nolabait Euskal Herriko unibertsitatetzat; baina epe laburrerako, gerra karlistek iraun zuten arte—. Dena dela, gure Herriaren historia unibertsitarioan lorpenik serioena izan zen, bere xumean, XX. mendera arte.

Oñatiko Unibertsitatearen helburuetako bat honako hau zen, hain zuzen: “Revelar la capacidad del ingenio vasco para todos los órdenes del saber”. Jakintza-alor horiek, ordea, orduko klasikoan eta “unibertsalenak” ziren: Teologia, Kanonak, Legeak eta Arteak (Filosofia), Elizaren babesekoak zirenez garai hartako Europako Unibertsitate gehienak; beste fakultate tradizionalak ere, Medikuntzarenak, izan zuen bere lekua Oñatiko Unibertsitatearen historian. Hala ere, ez

⁵ Horien sintesi laburra eduki nahi duenak, Santiago de Pablo eta Coro Rubio Pobesen liburuko lehen kapituluan aurki dezake: “Antecedentes históricos” (17-57).

zeukan “Euskal Unibertsitatea” izateko asmorik, ez irakasten zituen gaien aldetik eta ez erabiltzen zuen hizkuntzaren aldetik. Salamancako Unibertsitatearen eredura sortu zuten, haren eta antzekoen pribilegio eta foruekin.

Salamancakoaren menpeko eta babeseko sortu zuten zuzenean Iratxeko Unibertsitatea, XVII. mendearen hasieran (1616), haren ize-nean ematen baitzituen graduak. Estornés Lasak dioenez, “Se conferían en ella grados a los habitantes de Navarra, a riojanos, a burgaleses, guipuzcoanos, alaveses y vizcaínos” (I, 60). Bi mendez iraun zuen Nafarroako Unibertsitateak eta bizitza aski oparoa izan zuen. 1807an gobernuaren dekretuz itxita, eta 1816an berriro irekita, azkenean 1824an zeharo itxita geratu zen, behin betiko.

Bi unibertsitate horiek, Euskal Herriko lurretan eraikiak, duintasunez bete zuten beren eginkizuna hiru mende luzetan. Salamanca zen, ordea, horien eredua; eta Salamancak berak jarraitu zuen Euskal Herriko unibertsitario asko eta askoren amets eta helburu, hasieran esan dugunez. Haiek ez ziren euskal unibertsitate, are gutxiago unibertsitate euskaldun. Azken batez, Salamancakoaren sukurtsal ideologiko edota juridikoak izan ziren horiek hiru mendez.

XIX. mendean eta XX.ean bestelako ekimenak piztu ziren Euskal Herriarentzat unibertsitate propio eta publikoa eraikitzeko; baina horiek huts egin zuten, mende eta erdi baino gehiago luzatu behar izan zuen Euskal Herriak bere erbestealdi unibertsitarioa.

2.2. Unibertsitate probintzialak: XIX. mendeko proiektu publiko hutseginak

Ezaguna da XIX. mendeko erregimen liberalen politika zentralista; baita irakaskuntzan ere; bereziki irakaskuntzan, hain zuzen. Politika horren barruan ikusi behar da unibertsitate-barrutien sortzea (1857). Horien banaketaren arabera, Hego Euskal Herria bitan zatiturik geratu zen: Nafarroa Zaragozaren barrutian, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Valladolidedeko barrutian. Urte bereko Moyanoren legeak testu-liburuen gobernu-kontrolaz gain, Unibertsitatearen tituluak ematea Estatuaren esku ipini zuen eta Unibertsitateetako irakasleak Estatuaren funtzionario bihurtu zituen.

1868ko erregimen aldaketaren ondoren, ordea, irakaskuntza-askatasuna aldarrikatzearekin batera, irakaskuntzako erakundeak sortzeko ahalmena ere zabaldu egin zen, bereziki Diputazioentzat. Bi urte lehenagokoa da, Hego Euskal Herriko unibertsitate propio eta publikoa eraikitzeko lehen ekimen benetakoa, Nafarroako Diputazioak beste hiru herrialdeetako Diputazioei “Universidad Vasco-Navarra” eraikitzeko proiektua proposatu zienekoa. Euskal Herri osoko (Hegoaldeko) unibertsitatea eraikitzeko lau herrialdeen kidesan kulturalaren oinarria ipini zuen arrazoitzat, eta besteak beste, euskararena: “La Historia y la tradición de las provincias vascongadas y Navarra, su carácter y su fisonomía, sus costumbres y sus creencias, sus sentimientos y sus intereses son idénticos. Unos mismos son los rasgos de su territorio, y uno mismo el aspecto que presenta. El idioma vascongado, que es su lenguaje primitivo y general, se conserva y se conservará perpetuamente en este país”. Euskal Herriko probintzien zerbitzuko unibertsitatea eraikitzeko unibertsitateaz kanpoko arrazoitzat —lankidetzarako aitzakia soiltzat— erabiltzen dute hor euskara, eta horrek oinarritzen zuen batasuna; ez, ordea, unibertsitatearen beraren barne-arrazoi eta helburutzat. Euskal Herriaren hizkuntza jenerala da euskara; baina Unibertsitate berriaren hizkuntza izango zen, edo izan zitekeen, iradokizun eta zantzurik ez da inondik ageri. Euskal Herri euskaldunarentzat erbeste linguistikoan kokatuko zen berriro Universidad Vasco-Navarra zelakoa.

Dena dela, eta bestelako gorabehera politikoez gain, lau Diputazioen “probintzialismoak” zapuztu zuen Nafarroatik zetorren lehen asmo interesgarri hura; eta ondorengo urteetan probintzia bakoitza saiatu zen bere unibertsitatea lortzen. Dena dela, etorkizun laburrekoak izan ziren denak, gorabehera politikoak eta militarrek tarteko.

2.3. Oñatiko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitate bihurtua

Karlos VII.ak, Hego Euskal Herriko lurralderik gehiena kontrolatzen zuelarik, 1874an berreraiki zuen Oñatiko Unibertsitatea, lau herrialdeak batzen zituen unibertsitate-barrutiaren erdigunetzat. Historialariren batzuk horretan ikusi izan dute Euskal Herriko lehen unibertsitate nazionalaren proiektua. Izatez, Oñatiko Unibertsitate historikoaren jarraipena besterik ez zen izan, haren fakultate tradizional eta guzti, “unibertsitate regal eta pontifizio” bihurtua orain, Espainiako erregearen eta Erromako aita santuaren babespeko eta menpeko, alegia.

Besterik da, etor ote zitekeen benetan handik Euskal Herriko unibertsitate publiko eta autonomoa, areago, euskal unibertsitatea, euskaraz —euskaraz ere— baliatuko zena. Dena dela, gerra luzatu zen bi urtetan besterik ez zuen bizirik iraun; eta karlistek gerra galduta, inolako unibertsitaterik gabe geratu zen Euskal Herriaren lurraldea.

2.4. Deustu eta Navarra: Eliz unibertsitate pontifizioak

Euskal foruak suntsituta (1876), ez zegoen lekurik euskal unibertsitate nazionalaren asmoentzat. Hala ere, orduantxe, eta unibertsitatetatik kanpo, suspertu eta indartu zen kultur mugimendu garrantzitsua, Euskal Herriaren historia eta tradizioak ikertzeari ekin ziona. Orduantxe, errestaurazio politiko eta ideologikoak babestuta, eraiki zuten Jesuitek Deustuko Unibertsitatea ere (1886). Baina horrek ez zuen zerikusirik eta inolako harremanik garai hartako euskal letren errenazimenduari. Horretatik guztiz aparte finkatu eta hazi zen Deustuko Unibertsitatea, XX. mendearen erdia gainditu arte Euskal Herrian kokaturiko unibertsitate bakarra. Euskarari eta euskal kulturari begira, erbesteko unibertsitatea zen Deustukoa, XX. mendeko haien berpizkundearekin ere zerikusirik izango ez zuena.

Deustukoaren ondoren, eta 75 urte geroago, eraiki zuen Opus Deik Nafarroako Unibertsitatea, 1960an. Ordurako abiatua zen eta 60.eko urteetan indartu eta zabalduko zen, hain zuzen, euskararen eta euskal kulturaren mugimendu berria ere Espainiako Gerra zibilaren ondokoa: Euskaltzaindiaren suspertzea, aldizkariak, liburuak, euskalduntze eta alfabetatze mugimendua, ikastolak izan ziren horren adierazgarriak nagusienak. Horretatik guztiz kanpo kokatu zen, ordea, eta horrelatsu jarraitu du gaur arte Nafarroako unibertsitate pribatu horrek. *Exilioko* unibertsitatetzat jo behar dugu alde horretatik, zalantzarik gabe, nahiz eta Euskal Herriko lurraldean jardun.

Sintomatikoa da izan, nolatan euskararen eta euskal kulturaren berpizkunde mugimendu garrantziko biren paretuan sortu eta garatu izan diren Deustuko eta Nafarroako Unibertsitateak: baina ez bata eta ez besteak eduki izan dute luzaroan inolako harremanik mugimendu horiekin, ez eraginik horietan. Euskal mugimendua eta unibertsitate horiek bi unibertso linguistiko eta kultural bereizitan bizi ziren, nahiz eta lurralde berean jardun.

2.5. Eusko Ikaskuntza: Unibertsitatea Euskal Herriarentzat

Aparteko solasa merezi du 1918an Eusko Ikaskuntzak bultzaturiko proiektuak. Horren lehen kongresuan (Oñati, 1918) Luis Elizaldek ipini zituen *Universidad Vasca*-ren irizpideak eta abiaburuak bere “El problema de la enseñanza en el País Vasco” hitzaldian: “a la prosperidad material de nuestro País deben corresponder la mayor elevación posible de intelectualidad, del desarrollo y fomento de una cultura propiamente nuestra” (*Primer Congreso*, 867). Euskal Herriak guztiz beharrezkoa zuen unibertsitatearen aldeko hiru arrazoiaren artean honako hau jarri zuen: “ninguna institución mejor que la Universidad puede agrupar y coordinar, y dar espíritu de continuidad, de armonía y de convergencia a los esfuerzos individuales que por la cultura del País y para el mejor servicio del mismo estamos todos dispuestos a emprender” (872). Elizalde unibertsitatearen izaeraz duen kontzeptu elitista eta guzti —“La universidad es una selección de pocos espíritus, los mejores, los más fuertes, los verdaderamente capacitados” (873)—,⁶ ez dago zalantzarik Herri osoarentzako zerbitzuan jartzen duela hori. Katoliko sendoa bera, Deustuko Unibertsitate katolikoaren aurrez aurre, Unibertsitate publikoa eskatu zuen, Euskal Herriaren eraikuntzaren zerbitzuan.

Eusko Ikaskuntzaren lehen eginkizuntzat aldarrikatu zuen Esteban Bilbao *Universidad vasca* eraikitzearena, batzarraren itxierako hitzaldian: “Quizá su primer empresa sea la creación de la Universidad Vasca” (956).

Bigarren kongresuaren (Iruñea, 1920) bi gai nagusietako bat irakaskuntzarena izan zen, eta horren barruan “goi-irakaskuntzak” atal apartekoa izan zuen, hitzaldi orokor batekin eta sei hitzaldi bereziturekin. Tomas Elorrietak eman zuen “Enseñanza Superior” saileko hitzaldi orokorra: *Universidad Vasca*-ren hiru helburuetatik aurrena honela zehaztu zuen: “Queremos la universidad para fortalecer y perpetuar la vida del espíritu vasco” (168). Horrixek buruz eman zuen hitzaldiaren lehen zati osoa.

⁶ Euskal Herriarentzat, titulu akademikoak emateko fabrika edo diren “Universidades vulgarizadoras” direlakoan aurka, eliteak prestatzeko unibertsitatea nahi du berak: “Unos pocos buenos juristas, un puñado de ingenieros, una pequeña minoría de excelentes médicos, literatos y profesores bastarán para remover profundamente el País, para impulsar de un modo maravilloso el progreso cultural del mismo” (873).

Bigarren kongresuaren ondorioetan unibertsitateari buruzko hiru puntuetatik aurrenak honela dio: “El segundo Congreso de Estudios Vascos ha acordado recabar de los Poderes Públicos la autorización necesaria para crear una Universidad que sea órgano de nuestra cultura y progreso intelectual, para aportar el esfuerzo de nuestro pueblo al acervo común del género humano...” (550).

Hirugarren kongresuak (1922) aurretik batzorde bereziak idatzitako *Universidad Vasca*-ren estatutuak aztertu zituen, Espainiako gobernuari aurkezteko. Baina Madrilgo agintariak luzatuz joan ziren Eusko Ikaskuntzaren eskabide larri eta eutsiari; azkenean Primo de Riberaren diktadura ezartzean (1923), bertan behera geratu ziren amets eta eskabide larri haiek, eta Eusko Ikaskuntzaren proiektua ukoa ematean 1924ko urtarrilaren 19an.

Eusko Ikaskuntzarentzat, Hego Euskal Herri osoaren goi-irakaskuntzako erakundea izan behar zuen *Universidad Vasca* zelakoak, “euskal espirituaren” adierazgarria eta euskarrria, eta Euskal Herriarentzako unibertsitatea —“Una Universidad para el pueblo vasco” eskatu zuen Julian Elorzak III. kongresuaren itxiera-hitzaldian, Alfonso III.a erregearen aurrean—. *Universidad Vasca*, ordea, ez Euskal Unibersitatea, euskara Unibertsitateko laneko, irakaskuntzako eta ikerkuntzako hizkuntza izango zuena; Euskal Herriaren hizkuntza ikertu eta sustatzea zuen helburuetako bat unibertsitateak, hori bai, kulturaren parte eta adierazgarri nagusitzat; baina ez zuen bere laneko hizkuntza izango. Seinatzekoa da Eusko Ikaskuntzaren I. eta II. kongresuko hitzaldi guztiak erdaraz izan zirela —konklusioak euskarazko itzulpen eta guzti ageri dira I. kongresuko aktetan—.

Artean *exilio* linguistikoan jarraitzen zuen, beraz, gure unibertsitateak; erdara zuen horren aberria, ez euskara. Euskal komunitatearen “periferian” jarraitzen zuen, Jose Maria Sánchez Carrión “Txepetx”ek esango lukeen bezala. Euskarak leku garrantzizkoa izango zuen *Universidad Vasca*-n, baina euskal filologiaren sailean bakarrik.⁷

Espainiako II. Errepublikaren garaian bizi-bizia izan zen Euskal Herriak bere unibertsitatea edukitzeko eskabidea. Orduan landu zituzten autonomi estatutu guztietan ageri zen irakaskuntzaren kapitulua, baita unibertsitatearen gaia ere. Euskararen erabilera lehen eta bigarren

⁷ Horri begira eman zuen Wilhelm Meyer Lübke-k bere hitzaldia Eusko Ikaskuntzaren III. Kongresuan: “La organización de los estudios lingüísticos en la Universidad Vasca” (149-154).

mailako irakaskuntzan nahikoa argi zegoen estatutu-proiektu horietan; ez batere argi unibertsitatekoan. 1933an alkateek Gasteizen onarturiko Autonomi Estatutuak aurrekoek baino argiago formulatu zuen puntu hori; horren arabera, bigarren mailako irakaskuntzan bezala gorenekoan (unibertsitatean) euskara eta gaztelania erabili ahal izango ziren, “en las condiciones prescritas por la Constitución de la República”. Unibertsitatearen autonomia oso mugatua zen, estatuaren kontrolpean. —Unamunok aldarrikatua zuen 1931n Espainiako Gorteetan askoz arriskutsuagoa zela unibertsitate-autonomia, autonomia politikoa baino—. ⁸ Bestalde, Konstituzioaren arabera Estatuak berak nahi zituen irakaskuntzako erakundeak sor zitzakeen Euskal Herrian, Errepublikaren hizkuntza ofiziala —gaztelania— erabiliko zutenak.

Dena dela, bazirudien Euskal Herriaren mende luzetako unibertsitate-erbestealdia gainditzeko, edo unibertsitatea Euskal Herriratz bidean nolabait ipintzeko, legezko baldintza prekario batzuk behintzat ipinita zeudela Autonomi Estatutuarekin. Helburu horrekin eraiki zuen seguruenik 1936ko udazkenean Jaurlaritzak *Universidad Vasca autonoma*, bere Medikuntzako Fakultatearekin. Baina legezko prekarietatea baino prekarioagoa zen egoera politikoa. Eta handik hilabete gutxira hasi zen euskaldunen exilio handia: Euskal Herriko Unibertsitate autonomoaren alde borrokatu ziren irakasle, zientzilari eta adituen erbestealdi berria hasi zen, eta horrekin batera areagotu egin zen Herri honen exilio unibertsitarioa, batzar honetan bere ponentzian Xabier Apaolazak aztertuko duena, hain zuzen.

3. Anjel Apraiz versus Miguel de Unamuno

Gorago adierazi dugunez, bada, Salamancan edo erbesteko beselako unibertsitateetan erdaraz ikasketak egin ondoren, Euskal Herri-eritorrita, bere “hizkuntz aberrira” bete-betean itzuli denik. Atzerrian hartutako jakintza Herri honen zerbitzuan ipini duenik eta hori euskaraz eskaini dionik —unibertsitateetik kanpo, beti ere— askotxo izan dugu, zorionez, gure historian.

⁸ II. Errepublikako lehen gobernuak Consejo de Instrucción Pública berriaren lehen-dakari izendatu zuen Unamuno. Espainiako Gorteetan Konstituzioari buruzko eztabaidetan parte hartu zuen, eta jarrera zeharo atzerakoia hartu zuen Komunitate autonomoek beren unibertsitate autonomoa eraikitzeari eta bereziki beren hizkuntza propioa erabiltzeari buruz: “Cuidado que yo temo más aún que a la autonomía regional a la autonomía universitaria” (Orella 85). Azkenean onarturiko Konstituzio espainiarra Unamuno baino irekiagoa izan zen bi gaiotan.

Horien artean, Axular gogoratuko dugu berriro hemen, bere bizileku Saratik eman zigun *Gero* obra klasiko bikain eta guzti. Aspaldiko Axularrek, ordea, gure garaitako beste bat aipatu eta goraipatzera garamatza: Luis Villasante. Bera izan da Axularren miresleetan miresleena eta haren editore modernorik onena; berorrek egin du lanik handiena hura euskal literaturaren historiaren gailurrean ipintzen. Esan ote dezakegu Villasante izan dugula gure garaitako Axular berria, hura baino askoz oparoagoa bere idatzietan? Klasiko bihurtua dugu Axular euskal literaturan; Villasante, gure garaikoa dugunez, ezin esan klasikoa dugunik agian, baina bai klasiko izatera deitua.

Cantabriako Comillasko Unibertsitatean egin zituen teologiako ikasketak Villasantek, han irabazitako jakitatea gero euskara euskaldunoi eskaintzeko asmoz.⁹ Euskal Herrira itzulita, bere ikasketen alorreko euskal idazle oparoen eta egokienetako bihurtuko zitzaigun geroko urteetan Villasante, euskarari buruzko hainbat idazlan eta liburu ematearekin batera.¹⁰ Eta hemezortzi urtez Euskaltzaindiaren buru (1970-1988), euskara batuaren bultzatzaile eraginkorra izan zen gainera.

Exilio unibertsitarioari irtenbide pertsonalaz gain, irtenbide sozial eta instituzionala ere emateko ahaleginean, ordea, beste gizon bat goraipatu behar dugu: Anjel Apraiz (1885-1956), *exiliatu* unibertsitarioa bera ere. Salamancan baino lehen Deustuko Unibertsitate berrian ere ikasle izan zen nonbait; eta Salamancan ziharduen irakasle 1918 hartan. Erbestealdi unibertsitarioa minez eta suminez bizi zuen.

Bere eta bera bezalako beste hainbeste “erbesteratuen” patua gainditzeko bidea irekitzen ahalegindu zen; eta horri begira antolatatu zuen, antolatu ere, Eusko Ikaskuntzaren I. kongresua Oñatiko Unibertsitate enblematikoan (1918), patu beraren pean zeuden unibertsitateko

⁹ Handik idatzitako gutunetako batean honela zioen 1944. urtean: “Badakizute, ni, artara jarri ezker, estudiyoetan beti pozarren arkitzen naiz, arraiña uretan bezela zoriontsu; areago, ikaste auek gero gure erriari fedeko gauzak azaltzeko on aundia egingo didatela pentsatzean”. Eta honela hurrengo urteko beste gutun batean: “Ni, diodanez, len bezela nago leyatsu; edozein liburu ikusi edo gai bat estudiatzen detan bakoitzean, lenen-lenen gogora datorkidan gauza ba-al dakizu zein dan? “Onezaz zer egin litekean euskeraz” “au gauza ederra euskeraz jartzeko”, ta olakoak. Esate baterako, Apologetika estudiatzean Erromako martirien gauzakin zerbait oitu naiz ta euskeraz jartzeko gai bikaña zala pentsatuta, bi liburu erosi ditut”.

¹⁰ Villasanteren bibliografia oparoari buruz, ikus, besteak beste, Juan San Martín (483-487).

hainbat irakasle bilduz.¹¹ Handik sortu zuten Eusko Ikaskuntza erakunde berria. Erakundearen idazkari izendatuta, berak sustatu zituen ondorengo kongresuak eta Euskal Herriko unibertsitate publikoaren proiektua. Berak antolatu zituen Donostiako Udako Ikastaroak, oraingo Donostiako Udako Unibertsitate Ikastaroen aitzindariak nolabait.

Apraizentzat behar-beharrezkoa zuen Euskal Herriak bere unibertsitatea, euskal historiari eta kulturari buruzko ikasketak (ikerketa eta irakaskuntza) sendotu eta garatzeko. Beraren ustez, helburu horrexek izan behar zuen *Universidad Vasca*-ren ezaugarri nagusia. Euskal Herriak kultura unibertsalari eskainitako balio eta ekarpenei buruz mintzatu zen bera Eusko Ikaskuntzaren I. kongresuan: “La labor del pueblo vasco ante la cultura universal”. Horrelakoetan Euskal Herriaren nortasuna ageri da, haren ustez; Herri honen ezaugarri nagusia, berriz, euskara bera da.¹² Urtebete lehenago (1917) hitzaldi bat emana zuen Bilbon Apraizek, *Universidad Vasca*-ren premia aldarrikatuz, Euskal Herriari buruzko ikasketak bultzatzeko.

Euskal aberri linguistiko eta kulturala bilatu zuen Apraizek *Universidad Vasca*-ren proiektuan. Ez zuen ez beretzat eta ez Euskal Herriarentzat erbestealdi unibertsitario luzea amaitzea lortu; eta Bartzelonan eta Valladoliden jarraitu behar izan zuen unibertsitateko irakasle.

Urte batzuk lehenago (1901) Salamancan irakaslea zen beste “euskaldun” batek zuen emana bere hitzaldia Bilbon, ez zuzenean *Universidad vasca*-ri buruz, baina bai Euskal Herriarentzako bere proiektu kulturala agertuz: Miguel de Unamunok. Bilboko I. Lore-Jokoetan eman zuen hartaz ari gara. Bertan aldarrikatu zuen euskararen heriotza: mundu modernorako ez zuela balio, eta lehenbailehen

¹¹ Ikusi Apraizek bere hitzaldia hasi aurretik kongresuko mahaiburua zen Elorza Jaunak egin zuen hizlariaren aurkezpena, horren lana eskertuz eta horrentzat txalo beroak eskatuz (*Primer Congreso*, 493).

¹² Anjel Apraizek, euskaldunek musikan eta arte plastikoetan, espiritualitatean eta Eliz misioan, itsasgintzan eta ekonomian, filosofian, teologian eta zientzian, etab. kultura unibertsalari egindako ekarpena gogoratu ondoren, kezkatu amaitu zuen bere hitzaldia euskarari buruzko gogoetekin, alor horietan denetan goraiatzekoak diren jende horiek euskara erabili eta landu ez zutelako. “Para el afianzamiento de la personalidad vasca, de la colectiva y ya veremos como más o menos inmediatamente para la misma individual, no podemos menos de estimar imprescindibles la conservación y el cultivo de la lengua peculiar, de esa lengua que yo mismo no conozco aún como quisiera y que considero sin embargo como la principal de las características propias, que no siempre han tenido esos vascos ilustres en la debida estimación” (*Primer congreso*, 497).

hiltzea zuela onena. Euskaldunon arima handiari euskara estuegia gelditua zitzaion, haren ustez, eta hori erantzirik gaztelaniaz janztea genuen egokiena¹³. Beraz, *Universidad Vasca* eskatu beharrean, hobe genuen Salamancan erdaraz garatu geure euskal “arima”, eta handik zabaldu Espainiari eta munduari “euskal arrazaren” dohainak. Urte gutxi batzuk lehenago Bilbon bertan emandako beste hitzaldi batean esandakoen arabera, “arrazaren” espiritua zen hizkuntza —euskal arrazarena euskara, beraz—; baina 1901eko hitzaldian jantzi huts bihurtu da euskara, herriaren espiritua galdu gabe erantz daitekeena —besterik pentsatuz eta idatziz jarraituko du gaztelaniari buruz Salamancatik—. Testuinguru kontradiktorio horren barruan ulertu behar da nonbait “La sangre de mi espíritu es mi lengua, y mi patria es allí donde resuene” delako hura. Unamunok, bere burua euskal arrazaren adierazgarritzat zeukan hark, ez zuen *exilioan* sentitzen bere burua Salamancako Unibertsitatean; hizkuntz aberritz aldatuta, guztiz eroso sentitzen zen, nonbait, Salamancan eta gaztelaniaren munduan; agian bere barne-kontradikzioetan eroso sentitzen zelako.

Hirugarren gizon ospetsu bat daukagu, *exilio* unibertsitarioaren eta euskararen aberriaren artean borrokatu behar izan zuena, Salamancako Unibertsitatean irakasle hori ere: Koldo Mitxelena. Aipatua dugu gorago; baita bere lehen *unibertsitatea* —exiliokoa, noski— espetxea izan zuela, Burgoskoa. Espetxea utzi eta irakasletza lortuta, Salamancakoa bihurtu zuen nolabait hark bere euskal (euskarazko) aberriaren espazio unibertsitario pertsonala, Euskal Unibertsitaterik ezean. Hizkuntza Indoeuroparren katedratik, Euskararen ikertzaile handi bihurtu zitzaigun, eta bertatik ekin zion, besteak beste, euskararen hiztegi historiko handiari: *Orotariko Euskal Hiztegia*. Garai berriak etorri zirenean, berriz, Salamancako Unibertsitatea utzi eta Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) eraikitzen itzuli zen bere Herrira (1977), eta bertako irakasle eta erretoreordekoa izan zen.

Zalantzarik ez dago, jauzi kualitatibo handia, pertsonala, soziala eta instituzionala, eman zuela Koldo Mitxelenak Euskal Herriaren erbestealdi unibertsitarioa gainditzeko bidean. Badirudi gure unibertsitateak euskal herriratzea lortu duela neurri handi batez behintzat. Gaur egun euskal herritar gehienek Euskal Herrian unibertsitateko gai gehienak ikasteko aukera dute. Eta unibertsitateko irakasle gehienek bertan irakasteko eta ikertzeko aukera dute.

¹³ Gai honetaz eta ingurukoez berriki Joxe Azurmendik kapitulu zorrotzak eskainiak ditu bere *Espainiaren arimaz* aipaturiko liburuan. Ikus bereziki 11. kapitulua.

Zoritzarrez, antzinako erbestealdi linguistiko-kulturala benetan gainditu gabe geratu zen euskaldunen komunitatearentzat: “Euskal Unibertsitate” barik “Euskal Herriko Unibertsitate” geratu zen, Karlos Santamariak, Koldo Mitxelenari erantzunez, erabilitako bereizkuntza gogoratu.¹⁴ Areago, Euskal Herri osoko Unibertsitatea ez, baina EAEko Unibertsitate geratu zen EHU, lurraldez —horren autonomi estatutuaren arabera—. Egokia da une honetan Karlos Santamariak egindako bereizkuntzari buruz zerbait gehiago esatea. Bera ez dago Euskal Herriko, Euskal Herrian kokaturiko edozein unibertsitate publiko nahiz pribaturen aurka. Baina besterik da Euskal Unibertsitatea, haren iritziz: “Euskal Unibertsitatea euskal kultura eta hizkuntzaren *alma mater* izan beharko litzatekeen euskarazko unibertsitatea da”.

Horrelako definizioa aurrean, Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) aipatu behar dugu. Santamariak artikulua idatzi zuenerako, UEUk lau jardunaldi eginak zituen, eta Euskal Unibertsitateari buruz eztabaida luze eta biziak eginak ere bai. Kanpoko unibertsitateetan edota Euskal Herriko unibertsitateetan zihardutenen mugimendu garrantzizkoa izan zen 1970.eko urteetan ikasleen euskal mintegietan eta bereziki UEUren ikastaroetan gauzatu zena. *Exilioko* unibertsitatea gainditu eta euskal unibertsitate euskalduna bideratu eta eraikitze ahalegin bikaina izan zen hura. Euskara modernizatuak oinarritzeko lekua eduki behar zuen unibertsitate horretan; eta hori lantzeari ekin zion orduan eta geroago unibertsitario euskaldun askok, UEUn elkartuta. Euskal Unibertsitatearen bidegintza horretan lan apartekoa egin zuen aurten 50 urte bete dituen *Jakin* aldizkari eta taldeak eta 1977an horrek berak sorturiko UZEIk (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeak) (Agirrebaltzategi, 2006).¹⁵

Euskal kultura eta jakintza erdaraz aztertu eta lantzetik harantz joan behar duela Euskal Unibertsitateak. Gauza bat da euskal kultura zientziaren gai bihurtuta unibertsitatera eraman eta euskaraz nahiz erdaraz irakastea, horrela horri dimentsio unibertsala emanez; besterik da kultura eta zientzia unibertsalak —jakintzen unibertsoa— euskaraz ikasi, irakatsi eta adieraztea. Biak bilatu behar ditu Euskal Unibertsitateak, euskaldunak.

¹⁴ *Zeruko Argia* aldizkarian argitaratu zuen Santamariak bere artikulua, titulutik bertatik bere tesia oso nabarmen ageri duena: “Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea ez dira bat”.

¹⁵ Bere ibilbideari leial, Euskal Unibertsitatea izan zuen, hain zuzen ere, *Jakin* aldizkariak debeku administratibo luzearen ondorengo bere bigarren aldiko lehen zenbakiaren gai nagusia (1977).

Orain oraingoz Euskal Unibertsitatea ez baina Euskal Unibertsitatearen hazia besterik ez da UEU; agian gure unibertsitatearen erbestealdi luzea benetan gainditzeko aukera irekia. Batzuentzat utopiaren munduan geratzen ote da horrelako Euskal Unibertsitatea. Santamariak “ukopia” deitzen du aipaturiko artikuluan, H. Desroche pentsalariaren terminoa erabiliz: hau da, “erdizka bada ere behin edo behin eginkatzen hasi den utopia”.¹⁶ Dena dela, ez da, erbestean urte asko daramatzanak sarritan amesten duen herriratzea baino utopia utopikoagoa.

4. Unibertsitate lokala eta unibertsala: Unamuno eta Gandiaga

Puntu honetara iritsita, batek baino gehiagok galde lezake ea erbesteko unibertsitateetik euskal unibertsitaterako bidea egin dugun, ala unibertsitate unibertsaltetik (?) (Paris, Salamanca), unibertsitate lokale-ra (euskal unibertsitatera) bidea markatu besterik ez ote dugun egin. Eta berehala hasiko zaizkigu aldarrikatzen unibertsitateak bere baitan duela izaera edo bokazio unibertsala. Gai horri buruz zenbait gogoeta egin beharrean gaude gure ibilbide hau burutzeko.

Izan ere, unibertsitate hitzak “unibertsala” gogoratzen digu, gogoratu, bat-batean; areago, unibertsitatearen ezaugarri nagusia bide da unibertsaltasuna. Bada, ordea, unibertsaltasunaren izenean Euskal Unibertsitatearen kontzeptua arriskutsutzat hartu duenik. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) eraikitzeke asmo eta eztabaida haien inguruan idatzi bide zuen Daniel Inerarity-k, 1978an *Euzkadi* aldizkarian honako hau: “El nombre Universidad Vasca es sumamente ambiguo y puede llevar a equívoco, la universidad ha de ser universal, preocupándose de potenciar el estudio de lo vasco”.

“Universidad Vasca” kontzeptua baino “unibertsala” kontzeptua askoz anbiguoagoa ote den nago, ordea, ni. Inerarity-k, filosofoa izanik, ondo daki zenbat eztabaida egon den eta zenbat interpretazio

¹⁶ Ikus-eremutik kanpo dagoena izan daiteke hitzez hitz. Santamariak Unamunoren izena dakar, hain zuzen, bere artikuluan, hark bere garaian guztiz utopikotzat hartuko zuela eta, orain Euskal Herrian benetan gertatzen ari den zenbait gauza. Euskarari buruz Euskal Unibertsitateak lukeen eginkizuna oso argi du Santamariak artikulua berean: “Euskera diglosiaren purgatoriotik libratu nahi badugu, ‘Euskal Unibertsitate’ bat, edo zerbait holakorik, antolatu behar dugu nahi eta nahiez”. Unamunorengandik oso urrun da Santamaria.

eta teoria sortu duten “unibertsalaren” inguruan filosofiaren historian barna, Sokratesengandik hasi eta Hegelenganaino behintzat. Dena dela, badirudi unibertsitateak hasieran ez duela berez zer ikusirik “unibertsalaren” arazo filosofikoarekin, eta bai *de universa re* edo gauza guztien ezagutzak emateko sistema eta erakundearekin. Garbi dago, ordea, unibertsitatearen helburu hori, maila idealean liluragarria izanik ere, inolako unibertsitate historiko jakinek ez daukala giza ezagutza guztien berri ematerik. Harrokeria eta handikeria gehiegi ez ote da izan unibertsitatearen inguruan?

Unibertsitate bakoitzaren barrutia zabalagoa ala estuagoa izan daiteke, baina unibertsitate guztiak dira, izan, partikularrak eta lokalak berez. Paris eta Bologna ditugu Erdi Aroko unibertsitatearen eredu; baina horiek ez ziren unibertsitate unibertsalak. Gehienik ere orduko Europakoak, Europa batuagoa zenean gaur egungo Europar Batasuna baino. Izan ere, badirudi orduko ikasleek ez zutela Erasmus programaren beharrik, Napolitik edo Londrestik Parisera ikastera joateko, eta orduko Italiako edo Alemaniako irakasleek ez zutela titulu akademi-koen mugarik, Kolonian nahiz Oxforden irakasteko.

Gaurkoak baino unibertsalagoak ziren noski orduko unibertsitate europarrak. Europako estatu modernoekin batera unibertsitate nazionalak sortu ziren nolabait; sarritan estatu-nazioen beraien zerbitzu-koak. Baina unibertsitate modernoak bezala, Erdi Arokoak eta Errenazimenduaren garaikoak ere unibertsitate partikularrak ziren funtsean, Salamancakoa barne.

Louis Pasteur-ek aldarrikatu zuen zientziaren unibertsaltasuna, *L’Institut Pasteur* delakoaren inaugurazioko bere hitzaldian, 1888ko azaroaren 14 hartan, “La science n’a das de patrie” aldarrikatu zue-
nean. Eta haren ondoren unibertsitateko zientzilari askok beren lanaren dimentsio unibertsala, aberririk gabea, errebindikatu ohi dute; eta horren izenean unibertsitatearen unibertsaltasuna eta aberririk eza aldarrikatu. Baina Pasteur-ek berehala zehaztu —zuzendu?— zuen nolabait esaldiaren adiera: “Le savoir est le patrimoine de l’humanité”. “Patrimonioak”, ordea, bere aita du jatorrian, gizadi osoaren ondare bihurtuko bada ere. Alegia, zientziak eta zientziaren tenplua izan nahi duen unibertsitateak mundu osoarentzat baliozkoak izango diren fruituak eman behar ditu. Baina ez zuen esan zientziak —eta zientzialariak eta zientziaren erakunde den unibertsitateak— jatorririk eta errorik ez duenik. Ortega y Gasset-ek ohartarazten digu, hain zuen, Pasteur-ek

no labait zuzendu —osatu esan beharko genuke— egin zuela esaldia: Zientziak ez du aberririk, baina bai zientzialariak (Azurmendi 41). Zientzialariak —eta horrek produzitzen duen zientziak— bere lurra du eta bere erroak ditu —bere herria, bere aberria du jatorrian, abiaburuan—; helburua, berriz, gizadia, unibertsoa du zientziak, eta zientzialariak.

Gai honi dagokionez, honetara amaitu zuen Anjel Apraizek goian aipaturiko hitzaldia, Eusko Ikaskuntzaren egitekoa gogoraraziz (horren lehen kongresukoa): “Porque cuanto uno más alcanza la plenitud de su ser, resulta por este mismo hecho más universal. Así el conocimiento propio, base del saber, y la concentración del esfuerzo que es el principio de toda acción, serán nuestras mejores ofrendas al patrimonio común de todos los hombres” (498).

Tomas Elorrieta, Murtziako Unibertsitateko irakasleak, Eusko Ikaskuntzaren II. kongresuan hartu zuen parte, eta, gorago esan dugunez, *Universidad Vasca*-ren helburuei buruz mintzatu zen zuzenean. Honela lotu zituen berak unibertsitatearen bi ikuspegiak, partikularra eta unibertsala: “Queremos la Universidad, en primer término, para fortalecer y perpetuar la vida del espíritu vasco, porque aparte del afecto natural que profesamos a nuestro país, tenemos la convicción de que el desenvolvimiento espiritual de la humanidad sólo puede lograrse mediante el desenvolvimiento espiritual de cada individuo y el desenvolvimiento espiritual de cada pueblo” (*Segundo Congreso*, 168). Hiru orrialdetan garatu zuen bere ideia hori.

Zientzialarien eta unibertsitarioen arteko eztabaidak utzita, poetaren ikuspegiarekin amaituko dugu gure solasaldi hau: Bitoriano Gandiagaren hiru poema-zati ekarriz, hain zuzen. Unibertsaltasunaren izenean, euskara eta euskal kultura lokalizatzen, txokokeriatzat, gutxien eta baztertzuten dutenen aurrez aurre jartzen da gure poeta tinko. Euskal Herriko poeta euskalduna bera, Euskal Herriko beste poeta erdaldun baten, Unamunoren, aurka jartzen dela uler genezake bereziki Gandiaga.

a) Euskaldun izateari utziz izango zen euskalduna unibertsal, Unamunoren ustez, euskararekin ez baitago unibertsal izaterik.¹⁷ Salamancako errektore bilbotarraren erredura bere burua unibertsaltzat

¹⁷ Joxe Azurmendik dioenez, Unamunorentzat ere, “euskara baztertzeko egiazko arrazoa da unibertsala izen behar dela, eta ezin dela unibertsala izan euskararekin” (118).

daukan eta euskara baztertu duen euskal herritar “baskoarekin” polemikan, honela dio Gandiagak (2005, 95):

Baina zuk
unibertsal zarelako,
ez omen duzu Herririk,
mundua besterik.

Baina guk,
Herri bat garelako
dugu mundua,
mundua osatzen dugularik.

Baina zuk,
unibertsal zarelako,
gizadiaren arazo,
ardura ta gorabeherak,
zeureak omen dituzu.

Baina guk,
Herri bat dugulako,
gizadiaren arazo,
ardura ta gorabeherak,
geureak ditugu.

b) Euskara ezin daiteke gai izan mundu eta kultura modernoak adierazteko, Unamunoren ustez; hark bezala beste askotxok bota izan dute honako ideia: euskara berez dela ezgauza kultura moderno, zientifiko eta industrialerako. Horrelakoen kontra, horra gure poetaren salaketa (158-159):

Gizonen erruagatik izan ez balitz,
industri mundu honetan euskara erabiliko genuen,
Unamuno-kideek euskaraz idatzi al izango zuten,
itsasontzi horietan euskaraz eginen zen,
banku-etxeetan euskaraz erabiliko ziren diru-gorabeherak,
makinen durundia eta euskara nahastuko ziren faktoretan,
Deustuko Unibertsitatean euskaraz emanen ziren ikasgaiak,
abioiei euskaraz bialduko zitzaizkien mandatuak,
Gernikako Batzar-etxean euskaraz idatziko ziren agiriak,
Telefoniketan euskaraz arituko ziren emazteki pertxentak.

c) Unamunok euskararen heriotza iragarri eta aldarrikatzearekin batera, horren hiletak irudikatu zizkigun.¹⁸ Unamunorekin batera horrelako hiletan parte hartzen ari diren jakintsu, agintari eta elizgizon guztiez burlatzen da garrazki Gandiaga, bere “Gutxi gara euskaldunok” poeman (1985, 160):

Aurrera doa segida
 kultur ministrariak,
 sigla ezberdinetako
 politiko-saila
Amigos del País eta beste
 jakintza erakundetako jende
 zaldun eta oinezko
 zibil eta erlijioso
 larrosa zurien petaloak botaz.

Badakit, hitzaldi honen ondoren etorriko zaidala baten bat esanez, adierazitako guztia testuingurutik kanpo geratzen dela gaur, Europar Batasunean eta mundu globalean kokatu behar dugunean Euskal Unibertsitatea. Ez naiz ni aditua Bolognako erabaki berrietan, ez eta ECTS (European Credits transfer System) delakoan ere. Unibertsitate-tik kanpo dihardudan arren, badakit horietaz eztabaida bizia darabilte-la hemengo unibertsitateetako ikasle eta irakasleek.¹⁹ Testuinguru horretan, hain zuzen, inoiz baino gaurkotasun handiagoa dutela uste dut hemen azaldutako ibilbide historikoak eta eskainitako gogoeta xume hauek.

Globalizazioaren garai honetan, unibertsitate-exilio linguistikokultural berriari ihes egin beharrean da Euskal Herria, bere Euskal Unibertsitatea eraikiz, bertoko gizarte eta kulturaren errota eta Europa-ra eta Mundu zabalera irekia: “Eman eta zabal ezazu munduan fruitua...”

¹⁸ Euskara hilda eta lurperatuta nahi zuen Unamunok; beste era batera esanda, museo-ko ondare bihurtuta ikusi nahi zuen, filologo eta hizkuntzalarien autopsia-lanetarako gai edo: “¿Y el vascuence? ¡Hermoso monumento de estudio! ¡Venerable reliquia! ¡Noble ejecutoria! Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia; leguemos a los estudios tan interesante reliquia...” (Torrealdai 44).

¹⁹ Ikusi, besteak beste, honako testuok: *Jakin* aldizkariak duela lau urte argitaraturiko “Euskal Unibertsitatea” izeneko zenbaki monografikoa, eta Xabier Isasi (2006).

Bibliografia

- AGIRREBALTZATEGI, Paulo: "Erdararen atzerritik Euskararen aberrira". *Jakin* 42-43 (1987): 97-117.
- : "Jakin kultur taldea". *Jakin* 156 (2006): 15-39.
- AZURMENDI, Joxe: *Espainiaren arimaz*. Donostia: Elkar, 2006.
- CONGRESO DE ESTUDIOS VASCOS. *Primer Congreso de Estudios Vascos*. Bilbo: Bilbaína de Artes Gráficas, 1918.
- : *Segundo Congreso de Estudios Vascos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1920.
- : *Tercer Congreso de Estudios Vascos*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1922.
- ESTORNÉS LASA, José: *Los Vascos y la Universidad. Antecedentes y Realizaciones*. Bi liburuki. Donostia: Ed. Auñamendi, 1970.
- GANDIAGA, Bitoriano: *Denbora galdu alde*. Donostia: Erein, 1985.
- : *Euskalminez*. Donostia: Elkar-Labayru-Arantzazu, 2005.
- INERARITY, Daniel: "La Universidad Vasca". *Euzkadi* (1978).
- ISASI, Xabier: "Euskaldunak eta Goi-mailako Hezkuntza Esparru Unibertsitario Europarra". *Uztaro* 57 (2006): 83-90.
- JAKIN: "Iritzi bilketa: Zer-nolako Euskal Unibertsitatea?". *Jakin* 132 (2002ko maiatza-abuztua).
- MITXELENA, Salvatore: *Idazlan guztiak*. 1. liburukia. Oñati: Arantzazu, 1977.
- ORELLA, José Luis: *La Universidad Vasca*. Donostia: Erein 1977.
- PABLO, Santiago de eta Coro RUBIO POBES: *Eman ta zabal zazu. Historia de la UPV/EHU. 1980-2005*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006.
- SAN MARTÍN, Juan: "Aita Luis Villasante Kortabitarte joan zaigu (1920-2000)". *Euskera* 46 .1 (2000): 483-487.
- SANTAMARIA, Karlos: "Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea ez dira bat". *Zeruko Argia* (1976-X-17): 708.
- TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Donostia: Ttartalo, 1998.

UNAMUNO, Miguel de: *Obras completas*. XV liburuki. Madril: Afrodio Aguado, 1958.

VALLE, José del: “La lengua, patria común”. *Estudios Lingüísticos* 7 (2005): 391-416. www.elcastellano.org orrialdean jasota.